

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN TELEFONIA FINKO ETA MUGIKORRARI, DATUEI ETA INTERNETI DAGOZKION ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari (EGAB) dagozkion telefonia mugikorraren eta finkoaren, datuen eta Interneten zerbitzuak kontratatzea da, plegu honetan ezartzen diren zehaztapenekin bat.

2. KONTRATUARI LOTUTAKO ZERBITZUAK

Egun funtzionatzen ari diren zerbitzuak estali beharko dira eta ezartzeko material guztiaz hornitu beharko da.

Hasieran, etorkizunean izan daitezkeen gehikuntzak edo murrizketak baztertu gabe, hau da egungo egoera:

2.1 Telefonia finkoa

Gaur egun EGABk telefonogune propioa du (Neris 64) telefonia mugikorraren barneko komunikazio-zerbitzuak eskaintzeko.

Telefonoguneak telefono-zenbaki nagusi bat eta beste fax-zenbaki bat ditu. 10. kanaletako RDSI eta 16 luzapenez hornituta dago. Kanpoaldetik zuzenean sar daiteke eta mugikorretara nahiz finkoetara deiak egiten dituzte.

Luzapenak barneko deietarako 2 digituz (20tik 40ra) kodetuak daude eta linea nagusitik abiatuta banatzen da zenbakien tartea.

Zentralitako 3 telefono dauzkagu, moduludun 4 telefono, zuzeneko 15 teklarekin, eta gainerakoak sinpleak.

Sakelako telefonoetara egiten diren deiak 2 linea mugikorren bitartez bideratzen dira.

2.2 Telefonia mugikorra eta datuak

Gaur egun EGABk erabiltzaileei telefonia mugikorraren sareekin honako ahots eta datuen zerbitzuak eskaintzen dizkie:

Egun Euskadiko EGABk terminal mugikorretarako 6 linea mugikor ditu ahots eta datuekin eta tabletetarako 52 datu-txartel daude.

Modu osagarrian, 2 txartel mugikor ditu telefonogunetik mugikorretara deitzeko.

2.3 Internet

Gaur egun EGABk 100mb-ko zuntz optikoa eta wifi dauzka.

3. ESKATUTAKO ZERBITZUA DESKRIBATZEA

Lizitatuzaileak telefonia finko eta mugikorraren (ahotsa eta datuak) eta Interneten behar guztiak estaltzeko zerbitzuak, instalazioak, ekipamendua, mantenimendua edo konponbideak, balio erantsia duten zerbitzuak eta EGABen integratutako komunikazioak eskaini beharko ditu. 1. eranskinean, kalkulatzen diren telefonia finkoko eta mugikorreko deien batez besteko bolumenak eranstu dira. Ondoren beharrak zehazten dira:

3.1 Telefonía finkoa

Aurreko atalean deskribatutakoa kontuan hartuta, adjudikaziodunak EGABen telefonía finkoaren saretik eta horretarantz telefonía-zerbitzua eskaini beharko du, edo bestela hori ahalbidetzen duen konponbide berria ezarri, munduko edozein tokira deiak egin eta jaso ahal izateko. Egungo ahotsaren eta faxaren komunikazio-gaitasunak mantendu beharko dira, honako zerbitzuak eskaintzeaz gain:

Dei-desbideratzea, deiaren transferentzia, itxarote-deia, sartzen den telefono-zenbakiaren informazioa eta konektatutako erabiltzailearen nortasuna mugatzea.

Eskaintako konponbidea zentralita fisikoa bada, eskaintzak orain dagoen zentralitaren berrikuntza jaso behar du.

Fax linea bat beharko da.

EGABk egungo zenbakiak mantendu nahi ditu.

3.2 Telefonía mugikorra eta datuak

Hasieran ahotsaren eta datuen zerbitzuak telefonía mugikorraren 6 lineatarako eskainiko dira. Linea guztietan gutxienez nabigaziorako 10GB eta European Roaming gaitasuna beharko dira.

Datuen zerbitzuei dagokienez, batez beste 52 linearako eskainiko direla kalkulitzen da, gutxienez nabigazioko 4GBrekin. Halaber, 6 lineek Roamingerako gaitasuna izango dute.

Oraingo konponbidea mantentzen bada, 2 linea mugikor mantenduko dira trafiko mugikorrerako, zentralitari estaldura emateko.

3.2.1 Terminalez hornitzea

Kontratuaren sinadurarekin, hornitzaileak 6 smartphone terminal hornituko ditu, azken belaunaldikoak, gutxienez 128 GBko gaitasunarekin. Terminal horiek irekiak izango dira, EGABenak.

Kontratuaren xede diren 60 txartelekiko lizitatzailak gutxienez 10 sim txartel osagarri (nano eta micro) entregatuko ditu, edozein unetan aktibatu ahal izateko.

3.3 Internet

Internet zerbitzuei dagokienez, gutxienez 100 mbko zuntz optikoa eta wifi beharko dira.

4. EZARPEN-FASEA

Lizitatzailleak bere eskaintzan jarduera-plana zehaztuko du. Proiektua abian jartzeko metodologia, lan-prozedurak, zereginak eta bitartekoak izango ditu. Zerbitzuez hornitu eta horiek konfiguratu nahiz abian jartzeko egutegi zehatza sartuko da.

Proposatutako konponbidearen elementu bakoitza eta konponbide orokorra behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko, proba-plana eskuratuko da.

Plana diseinatzean gutxienez hurrengo jarduerak aurrez ikusiko dira berehala egiteko:

- Eskatutako telefonia finkoaren zerbitzuak abiaraztea, zerbitzu horien funtzionamendua ahalik eta gutxien aldatuta, bai EGABn, bai kanpoalderantz eta kanpoalderetik.
- Egun Euskadiko EGABren kideek dituzten zenbakiak eramatea, bidezkoa bada. Kudeaketa hori kontratua legezkatzen den unetik legezko epeetan egingo da.
- EGABren erabiltzaileen talde itxia abiaraztea.
- Eskatutako zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren ekipamendu eta elementu osagarri guztiak instalatu eta abian jartzea. Xede horrez, ekipamendutzat jotzen da edozein hardware, software, firmware, zerbitzarien sistema eragile, mezularitza-software, lizentzia, kontrol-software, etab., adjudikaziodunak eskaintako konponbideek funtzionatzeko beharrezkoak badira.

5. FAKTURAZIOA

Adjudikaziodunak emandako zerbitzuak eskaintako prezioarekin bat hilerok fakturatuko ditu.

Enpresa operadore adjudikaziodunak kudeatzaile bat izendatu beharko du eta EGABren fakturazioarekin zerikusia duten alderdietarako solaskide arduraduna izango da.

6. LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Kontratua betetzeko egindako eragiketa guzti-guztietan, adjudikaziodunak zorrotz bete behar izango du lan arloan eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legeria. Lan prebentzioaren eta arriskuen arloan indarrean dagoen arautegiak ezarritako guztia bete behar izango du, bereziki prebentzio ekintzaren printzipioei dagokiena (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 15. artikulua), langileen prestakuntzari dagokiona (19. artikulua) eta lan ekipoei eta babes baliabideei dagokiena (17. artikulua), bai eta gaiari buruzko gainerako arautegi zehatza ere.

7. ADJUDIKAZIODUNAREN GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK

Enpresa adjudikaziodunak behar bezalako eta behar beste giza baliabide eta bitarteko tekniko izango ditu, Euskadiko EGABi beharrezko laguntza eta euskarri teknikoa eskaintzeko, betiere kontratuaren gai diren zerbitzuak zuzen eta egoki emango direla bermatze aldera.

8. SEKRETUA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Lizitatzailleek eta adjudikaziodunak trataera erreserbatu eta konfidentziala emango diote informazio guztiari eta bereziki informazio pertsonalari, betiere Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoari jarraiki. Enpresa lizitatzailleak edo adjudikaziodunak informazio hori eskura dezake Euskadiko EGABren eskutik; gauzak horrela, informazioa zainduko du eta haren menpeko pertsonalak ez du haren berri emango, baldin eta Administrazio honen idatzizko baimenik ez badago. Betebehar hori indarrean izango da kontratua amaiturik egon arren edo ezeztatua izan arren. Hori guztia, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzaldizko Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz.

Bilbon, 2016ko azaroaren 11n

Francisco José Huidobro Burgos – Batzordeburua

1. ERANSKINA

TELEFONIA FINKOA	Hila		Urtea	
	orduak	minutuak	orduak	minutuak
Metropolitarrak	6	360	72	4.320
Probintzia artekoak	2	120	24	1.440
Mugikorretara	6	360	72	4.320
Aurreratuak (900)	1,5	90	18	1.080
Info eta larrialdiak	0,25	15	3	180
	<u>16</u>	<u>945</u>	<u>189</u>	<u>11.340</u>

TELEFONIA MUGIKORRA	Deiak	Hila		Deiak	Urtea	
		orduak	minutuak		orduak	minutuak
Nazionalak finkoetara	70	2,5	150	840	30	1.800
Nazionakla, beste operadoreetara	190	10	600	2.280	120	7.200
Mugikorrak, barruan	105	9,0	540	1.260	108	6.480
Roamingen egindako deiak	30	1,3	75	360	15	900
		<u>23</u>	<u>1.365</u>		<u>273</u>	<u>16.380</u>